

ETORKIZUNA ERAIKIZ THINK TANK

ONGIZATE EGOERAREN ETORKIZUNEI BURUZKO EZTABAIDA TALDEA

IKERKETA EGUNKARIA 1 ZK.

1. ZIKLOA (2020-2021)

Etorkizuna eraikiz Think Tankeko ikerketa egunkarien helburua da think tank honen ikerketa sustatzea, ikertzaileei prozesua ulertzeko baliabideak eskainiz. Horretarako, Think Tankaren ibilbidearen mugarri nagusiak azaltzen dituzte, sortu diren gainerako dokumentuekin loturak ezarriz. Gainera, ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen eta beste dokumentuetan agertzen ez diren edukiak azaltzen dituzte. Think Tankaren diseinuan eta kudeaketan lan egiten duten pertsonen lana jasotzen dute nagusiki, eta Think Tankaren oinarri metodologikoak ikertzen lagun dezakete.

Edukia

Sarrera	3
Think Tankaren esparru metodologikoa: lurralde garapenerako ekintza-ikerketa	3
Eztabaida taldeak abian jartzeko oinarriak ezartzea (2020ko urtarrila-maiatza)	5
Ongizate egoeraren etorkizunei buruzko eztabaida taldea. I. zikloa	6
2020ko maiatza – uztaila: taldea abiaraztea, prozesuaren joko arauak ezartzea, eta eztabaida Covid-19aren krisiaren eraginean zentratzea (I. ardatz tematikoa).....	7
2020-05-25. 1. bilera. Lan proposamena aurkeztea eta adostea, eta 1. ardatzari buruzko hausnarketa hastea: Covid-19aren inguruko ikaskuntzak eta jarduketa gomendioak.....	7
<i>Bileraren ondoren</i>	8
2020-07-23. 2. bilera. Joko arauekin lotutako alderdiak zabaltzea eta Covid-19aren krisiaren inpaktuari erantzuteko ekintzak lehenestea (I. ardatza).....	9
<i>Bileraren ondoren</i>	10
2020ko iraila. Prozesurako esperimentazio esparrua ezartzea eta esperimentaziorako eztabaida agenda elkarrekin diseinatzea	10
2020-09-24. 3. bilera. Covid-19ari buruzko gogoeta amaitzea (I. ardatza) eta ongizate egoeraren etorkizunei buruzko eztabaidarako metodologia eta ardatzak ezartzea (II. ardatza).....	10
2020ko urria – 2021eko maiatza. Erronkaren ardatzei buruzko eztabaida, lehen aldaketak, eta POAri buruzko lantaldea eratzea	12
Pertsonarengan oinarritutako arreta.....	12
<i>Hurrengo bileraren aurretik</i>	12
2020-11-26. 4. bilera. Covidaren inpaktuaren kanpo-azterketa, eztabaida agendaren proposamena eta pertsonarengan oinarritutako arreta.....	12
<i>Bileraren ondoren</i>	14
2020-12-14. 5. bilera. Pertsonarengan oinarritutako arreta etxean: sakontzea eta ekintzen proposamena definitzea	14
Erakundeen arteko koordinazioa eta Think Tankaren 2021eko agenda.....	15
<i>Hurrengo bileraren aurretik</i>	15
2021-01-28. 6. bilera. Arreta ekosistemak sortzeko koordinazioa hobetzeko ekintzen proposamena eta Think Tankaren 2021eko agenda.....	16
Lankidetzako gobernantza, gizarte politiken jasangarritasuna, ebaluazio agentzia, eta pertsonarengan oinarritutako arretari eta ebaluazio agentziari buruzko lantaldea sortzea ...	17
<i>Otsailaren 25eko bileraren aurretik</i>	17
2021-02-25. 7. bilera. Nola bultzatu lankidetzako gobernantza gizarte politikan, kide berriak sartzeko, POA lantaldea sortzeko erabakia eta elkarrizketa zibileko mahaiaren aurrerapenak	17
<i>Hurrengo bileraren aurretik</i>	19

2021-03-24. 8. bilera. Gizarte politiken jasangarritasuna, POA taldea eratzea, Liburu Zuriaren kronograma eta ebaluazio sare bat bultzatzea	19
Hirugarren sektorearen digitalizazioa, etorkizunen diseinua eta Think Tankaren lehen zikloaren ebaluazioa	20
<i>Hurrengo bileraren aurretik</i>	20
2021-04-29. 9. bilera. Liburu Zuriaren aurkibidea eta hirugarren sektorean trantsizio digitala sustatzeko ekintzak	20
<i>Bileraren ondoren</i>	22
2021-05-27. 10. bilera. Etorkizunak diseinatzen: etorkizun hobera iristeko ekintzak zehaztea, eta Think Tankeko lehen zikloaren ebaluazioaren ondorioak.....	22
2021eko maiatza – ekaina. Ebaluazioa, POA taldearen ondorioak eta lehen zikloaren itxiera....	23
2021-05-27. 10. bilera. Think Tankeko lehen zikloaren ebaluazioaren ondorioak, eta etorkizunak diseinatzea: etorkizun hobera iristeko ekintzak zehaztea.....	23
<i>Hurrengo bileraren aurretik</i>	24
2021-06-22 11. bilera. POA lantaldearen ondorioak	24
1. Irudia. Ongizate egoeraren etorkizunei buruzko eztabaida taldearen I. zikloaren kronologia	26

Sarrera

Etorkizuna Eraikiz Think Tank Gipuzkoako Foru Aldundiaren Etorkizuna Eraikiz ekimenaren barruko gune bat da, eta ezagutza batera sortzeko gune bat, Gipuzkoaren erronka handiez jabetzeko, haiek ulertzeko eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren politikari lotutako ekosistemak hobetzeko prozesuak definitzeko aukera ematen duena, erronka horiei lankidetzazko gobernantzaren filosofiatik heltzeko.

Think Tanken garatzen den ezagutzaren gardentasuna eta hedapena eta jardueraren ikaskuntza sustatzeko, ekimen honek ahalegin handia egiten du ikus-entzunezko materiala eta dokumentuak sortzeko, eta horien bitartez jakin daiteke nola ari den garatzen prozesua eta prozesu horren ikaskuntza, emaitza eta inpaktu nagusiak. Material hori etengabe eguneratzen da, eta eskuragarri dago Etorkizuna Eraikiz Think Tanken webgunean. Bertan, honako hauek aurki daitezke: Think Tankeko eztabaida taldeetako partaideen zerrenda, eztabaida taldeen hileko bileren memoriak, eztabaida taldeetako adituen hitzaldiak, adituen gogoetak laburbiltzen dituzten lan dokumentuak eta gaian adituak direnek egindako txostenak, hausnarketarako tresna gisa erabili direnak, eta eztabaida taldeek egindako txostenak, ikaskuntzak jasotzen dituztenak.

Gainera, Think Tankak egituratuta dagoen eztabaida taldeen bileren eta lan dokumentuen memoriak osagarri gisa, ikerketa egunkariak garatzen dira. Horiek ere web orrian daude, eta Think Tank honen ikerketa sustatzea dute helburu, ikertzaileei prozesua ulertzeko baliabideak eskainiz. Horretarako, Think Tankaren ibilbidearen mugari nagusiak azaltzen dituzte, sortu diren gainerako dokumentuekin loturak ezarriz. Gainera, ikerketarako interesgarriak izan daitezkeen eta beste dokumentuetan agertzen ez diren edukiak azaltzen dituzte. Think Tankaren diseinuan eta kudeaketan lan egiten duten pertsonen lana jasotzen dute nagusiki, eta Think Tankaren oinarri metodologikoak ikertzen lagun dezakete.

Dokumentu hau ongizate egoeraren etorkizunen eztabaida taldeari dagokion ikerketa egunkaria da, bere lehen eztabaida zikloan, 2020ko maiatzetik 2021eko ekainera bitarteko aldi horretan jarraitutako prozesua xehetasunez deskribatzen du. Sarreran, halaber, 2020ko urtarriletik maiatzera bitartean egindako lana azaltzen da. Bertan, lau eztabaida taldeak (horien artean, ongizate egoeraren etorkizunei buruzkoa) abiarazteko oinarriak ezarri ziren.

Think Tankaren esparru metodologikoa: lurralde garapenerako ekintza-ikerketa.

Think Tankaren diseinuaren oinarriak jasotzen dituen #0 ikerketa egunkarian deskribatzen den bezala, Think Tankak gidari duen esparru metodologikoa lurralde garapenerako ekintza-ikerketa da, ekintza-ikerketaren hurbilketa zehatza. Hona hemen esparruaren ezaugarri nagusiak, Think Tankaren diseinuaren oinarrietan jaso zen bezala, Think Tankaren eta eztabaida taldeen lana garatzeko esparrua ezartzeko.¹

Lurralde garapenerako ekintza-ikerketa eraldaketarako estrategia gisa definitzen da, eta honako ezaugarri hauek ditu:


Ekintza-ikerketaren hurbilketa hori hainbat lan akademikotan garatu da, baina, batez ere, honako hauetan: Karlsen eta Larrea, 2014. Territorial Development and Action Research. Innovation through dialogue. Farnham: Gower; eta Larrea (arg.), 2020. Roots and Wings of Action Research for Territorial Development

- a) LGEIk honako oinarri hauek ditu: Norwegian garatutako demokrazia industrialia, Paulo Freireren lana, AR+ sarean garatutako eraldaketarako ekintza-ikerketak, eta politiken azterketatik abiatuta ekintza-ikerketari egindako ekarpenak. Datozen urteetan, oinarri hori zabaldu egingo da Think Tankaren beharren arabera.
- b) Euskal Autonomia Erkidegoan (eta, bereziki, Gipuzkoan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik) landutako prozesu esperimentaletan garatu da. Horretarako, aurreko puntuan aipatutako eragin teorikoak tokiko ezaugarrietara egokitu dira.
- c) Baterako sorkuntza prozesuen bitartez garatzen da, ikertzaileen eta politikariduradunen arteko elkarrizketa prozesuetan.
- d) Prozesu horien oinarria eragile bideratzaileen lana da. Horien artean daude arduradun politiko bideratzaileak eta ikertzaile bideratzaileak.
- e) Bideratze prozesuen barruan, konplexutasunaren, gatazken zehaztapenaren, ikuspegi partekatuen eraikuntzaren, ikaskuntzaren, negoziazioaren eta eztabaida ideologikoaren inguruko lana garatzen da. Horren guztiaren helburua da ekintza eraldatzea.
- f) Aurreko puntu guztiak praktikan nola gauzatu diren jakiteko, badira zenbait lan eta dokumentu, kontzeptu horiek prozesu zehatzetan nola garatu diren jasotzen dutenak.

Think Tankaren prozesuen metodologia

LGEIren oinarri dira elkarrekin sortzeko prozesuak. Prozesu horien izaera 1. irudian jasotzen da.

1. irudia. El modelo co-generativo de la investigación acción para el desarrollo territorial



Iturria: Karlsen eta Larrea, 2014².

Eredu horren arabera, prozesuak urrats jakin batzuk izango ditu:

- **Lehen urratsa.** Prozesuan parte hartuko duten eragile politikoen eta ikertzaileen arteko elkarrizketa gunea irekitzea.
- **Bigarren urratsa.** Arazo partekatua definitzea. Arazo hori prozesuaren hasierarako zehaztuta egon daiteke prozesua egitea erabaki dutenen aldetik, baina garrantzitsua da prozesuan parte hartzen duten eragile guztien artean arazoa berriro aztertzea, eta ziurtatzea parte hartzen duten guztientzat esanguratsua dela eta arazo hori konpontzeko lankidetzarako borondatea dagoela.

²Karlsen, J. eta Larrea, M. (2014). Territorial Development and Action Research. Innovation through dialogue. Farnham: Gower.

- *Hirugarren urratsa.* Lurralde konplexutasuna azaleratzea eta horren narratiba partekatua eraikitzea. Prozesu batean lurralde konplexutasuna egongo da, baldin eta arazoaren eremuan autonomoak diren baina elkarri eragiten dioten eragileak badaude (elkarren mendekoak dira). Konplexutasun egoeretan, eragile horiek ikuspegi desberdinak izan ditzakete arazoari eta konponbide posibleei buruz, baina bakar batek ere ez dauka gainerakoek zer egin behar duten erabakitzeke hierarkia. Lurralde garapeneko eta, ondorioz, politiken garapeneko prozesu gehienak konplexuak izaten dira, eta ekosistemako eragile ezberdinen parte hartzea eskatzen dute.
- *Laugarren urratsa.* Arazoaren interpretazio desberdinak ulertzea, ikuspegi partekatua garatzea eta erreflexua sustatzea une bakoitzean egin daitezkeen ekintzetan adostasun nahikoak eraikitzeke.
- *Bosgarren urratsa.* Erabakiak hartzeko hausnarketan landutako gaietan negoziazio prozesuak garatzea, eta erabakiak hartzea.
- *Seigarren urratsa.* Erabakiak ekintzara eramatea. Ondoren, ekintzaren inguruko hausnarketa prozesu bat landuko da, ikusteko garatutako ekintzak zer neurritan konpondu duen arazoa, eta adosteko zein den agertoki berrian landu nahi den arazoa.

Eztabaida taldeak abian jartzeko oinarriak ezartzea (2020ko urtarrila-maiatza)

2019ko iraila-abendua aldi, Think Tankaren oinarriak ezarri ziren (Think Tankeko prozesuen filosofia, misioa, gobernantza, esparru metodologikoa eta Think Tankeko prozesuen metodologia eta ezagutza motak sortzeko eta erabiltzeko estrategiak), lehenengo ikerketa egunkariak deskribatzen duen bezala.

Eztabaidaren oinarriak ezarri ondoren, 2020ko urtarrila eta maiatza bitartean:

- Lehenetsuneko lau eremu definitu ziren Think Tankeko ezagutza batera sortzeko prozesuen jarduerari ekiteko, eta horretarako, lau eztabaida talde sortu ziren: 1) Kultura politiko berria eta lankidetzazko gobernantza (ezagutza elkarrekin sortzeko gainerako prozesu guztiak zeharka aberastu behar dituen); 2) Etorkizuneko ongizate sistema; 3) Etorkizuneko lana; 4) Berreskuratze berdea.
- Think Tankeko jarduera gidatzeko taldeak eratu ziren, lidergo politikoko talde bat eta koordinazioa sustatzeko talde bat, biak ala biak arduradun politikoek eta Think Tankeko ikertzaile nagusiak osatutakoak. Gainera, Foru Aldundian proiektuaren Idazkaritza Teknikoa eratu zen.
- Aurreko fasean ezarritako printzipioetan oinarrituta, talde horiek Think Tankeko eztabaida talde guztien alderdi komunak eta horietako bakoitzaren alderdi bereziak definitu zituzten:
 - Eztabaida taldeen lan dinamika orokorra:
 - Urtebeteko zikloak hileroko bilerekin. Talde guztiek urtebeteko hasierako ziklo bat izango zuten, hilero bi orduko bilerak eginez;
 - Bilera horietan hausnarketako talde dinamikak eta gonbidatutako adituen txostenak konbinatuko ziren (ezagutza mota desberdinak integratzeko)
 - Bileren ondoren, parte-hartzaileei bileraren ebaluazioa egiteko eskatuko zitzaie, prozesuaren etengabeko ebaluazioa eta eraikuntza sustatzeko
 - Talde bakoitzaren ebaluazioa egingo zen eztabaidaren lehen zikloa amaitzean, taldeen jarraitutasuna baloratzeko eta bigarren zikloa egokitzeke, halakorik balego.

- Prozesuaren dokumentuak. Think Tankaren jardueraren barneko eta kanpoko ikerketa eta gardentasuna sustatzeko, erabaki zen hainbat dokumentu mota egingo zirela, eta webgunean jarriko zirela eskuragarri. Horretarako, liburutegi bat prestatuko zen, informazio hau barne dela: (<https://www.gipuzkoa.eus/es/web/etorkizunaeraikiz/escuchar/think-tank>),
 - o Eztabaida taldeen hileko bileren memoriak
 - o Parte-hartzaileen gogoetak laburbiltzen dituzten lan dokumentuak
 - o Parte-hartzaileek sortutako dokumentuak, komunikaziora bideratuak
 - o Argitalpen akademikoetan erabil daitezkeen eztabaida prozesuari buruzko ebidentziak biltzen dituen ikerketa egunkaria
 - o Parte-hartzaileen zerrenda.
 - o Gaian adituak direnek egindako txostenak eta liburuak, hausnarketarako tresna gisa erabili direnak.
- Eztabaida taldeen arduradunak, parte-hartzaileak eta helburu zehatzak definitzea. Eztabaida talde bakoitzerako, taldeen ardura duen departamentu bakoitzak honako datu hauek zehaztu eta ezarri zituen:
 - o talde bakoitzera gonbidatuko zituzten pertsonen zerrenda (ekosistemako eragile garrantzitsuak).
 - o taldearen helburu zehatza eta landu beharreko foku tematikoak.
 - o Prozesua errazteko lantaldea eta dinamika, taldeak bideratzeaz arduratzen zen taldeko kide bakoitzaren zeregin eta erantzukizunak zehaztuta. Think Tankeko ikertzaile nagusia arduratuko zen talde guztiak orokorrean bideratzeaz eta bi talde (Kultura politiko berria eta Etorikizuneko lana) berriaz bideratzeaz, eta beste bi taldeak (Berreskuratze berdea eta Ongizate egoeraren etorkizunak) departamentu arduradunekin lan egiten duten bideratzaile banak bideratuko zituzten.

Ongizate egoeraren etorkizunei buruzko eztabaida taldea. I. zikloa

2020an Think Tanka lau eztabaida taldetan antolatu zen, eta horietako bat Ongizate egoeraren etorkizunei buruzko taldea da. *# 0 lan dokumentuan* jasotzen den bezala (aurrerago xeheago azalduko dugu), talde honen asmoa da “gizarte politiketarako ikuspegi esperimentalak bultzatzea, ongizate egoera berri baterako trantsizioa errazteko”, eta bere helburu orokorra da, halaber, “trantsizioko gizarte politikak diseinatzen, ikasten eta ebaluatzen laguntzea”.

Taldearen eztabaida prozesua 30 pertsonako talde batekin hasi zen. Talde hori honako hauek osatzen zuten: hirugarren sektoreko antolakundeetako, enpresetako, teknologia zentroetako eta ikerketa taldeetako ordezkariak, gizarte politikako arduradun teknikoak, zeinak lotura zuzena duten Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren eskumenekoak diren lau jardura arlo nagusiekin, hala nola mendekotasunaren eta desgaitasunaren arreta, haur eta nerabeen babesa eta gizarte inklusioaren sustapena, eta indarkeria matxistaren biktimen arretarekin. Era berean, bideratze taldeko hiru pertsona (taldekideen zerrenda Etorikizuna Eraikizeko web orriko liburutegi birtualean dago: <https://www.gipuzkoa.eus/es/web/etorkizunaeraikiz/biblioteca-el-sistema-de-cuidados-del-futuro>).

Honako hauek dira Think Tankeko talde honen arduradunak: Arduradun nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako diputatua da, eta arduradun operatiboa, Gizarte Politiketako Departamentuko Plangintza, Inbertsio eta Prestazio Ekonomikoen zuzendari

nagusia. Taldea prozesuaren bideratzaile batek bideratzen du, Think Tankaren prozesu orokorra errazten duen ikertzailearekin lankidetzan; eta biek, gainera, prozesuaren lan dokumentuak prestatzen dituzte. Bideratzaile taldeko pertsona batek egiten ditu bileren memoriak (kideen hitzaldiak ez dira izen-abizenekin jasotzen, kodeen bidez baizik, taldeak lehenengo bileran adostutako moduan). Idazkaritza Teknikoak itzuli eta webgunean ostatatzen ditu memoria horiek, eta, gainera, bera arduratzen da bilerak logistikoki prestatzeaz. Gizarte Politiketako Departamentuko pertsona bat arduratzen da taldeko kideei bileretarako gonbidapenak eta dagokion dokumentazioa (memoriak, galdetegiak) bidaltzeaz.

Talde horretako lehen ziklorako (2020-2021) lan esparrua eta lan proposamena, 2020ko maiatzeko definitutakoa, aurreko atalean adierazi den bezala, # 0 lan dokumentuan jasota daude. Dokumentu horretan sartzen dira Etorikizuna Eraikiz Think Tanka justifikatzen duen abiapuntuko diagnostikoa, eztabaida prozesurako eta ezagutza berriaren baterako sorkuntzarako esparrua, lan metodologia eta Think Tankaren barruan ezagutza batera sortzeko foku tematikoak; eta ongizatearen estatuaren etorkizun berriei buruzko eztabaida taldearen ezaugarriak eta helburua, taldearentzako egokitzapen metodologikoa, lan foku tematiko posibleak, 2020ko ekainetik 2021eko maiatzera bitarteko eztabaidaren lehen zikloaren egitura eta lan dinamika bileren maiztasunarekin. Proposamen hori taldekideekin partekatu eta adostu zen taldeak 2020ko ekainaren 25ean egindako lehenengo bileran.

2020ko maiatza – uztaila: taldea abiaraztea, prozesuaren joko arauak ezartzea, eta eztabaida Covid-19aren krisiaren eraginean zentratzea (I. ardatz tematikoa)

Eztabaida taldea 2020ko maiatzaren 25ean hasi zen lanean. Think Tankeko talde arduradunak hasierako bileran azaldu zuen bezala, hasiera batean aurreikusita ez bazegoen ere, Covid-19aren pandemiak sortutako ezohiko egoerak (martxoan hasi zen) ekarri zuen Covid-19aren gaia eta horrek gizarte politikan duen eragina ere taldean lantzeko beharra. Horregatik, lehenengo saioak eztabaida ardatz tematiko horretan oinarritu ziren, eta, horrez gain, eztabaida taldearen izateko arrazoia, helburuak eta funtzionamendu proposamena partekatu eta ezarri zituzten.

Jarraian, 2020ko ekainean eta uztailean egindako lehenengo bi bileretako lana zehazten da.

2020-05-25. 1. bilera. Lan proposamena aurkeztea eta adostea, eta 1. ardatzari buruzko hausnarketa hasia: Covid-19aren inguruko ikaskuntzak eta jarduketa gomendioak

Eztabaida taldea abiarazteko bilera ekainaren 25ean egin zen, bi orduko tailer bat izan zen. Bilera horren edukia # 1 Memorian jasota dago.

Bileran bi bloke landu ziren:

- 1) *Prozesuari buruzko elkarrizketak: eztabaida taldearen logika, helburuak eta funtzionamendua*

Think Tankeko eta eztabaida taldeko talde arduradunek talderako lan proposamena aurkeztu zuten (# 0 lan dokumentuan jaso zen eta parte-hartzaileekin partekatu zen). Honako hauek azaldu ziren:

- think tank baten beharra eta Etorikizuna Eraikiz ekimenean duen rola;
- taldeak landuko duen lan eremu tematikoaren esparrua (gizarte politiken trantsizioa)
- taldearen helburu zehatza, taldearen osaeraren arrazoia, eta eztabaidaren lehen zikloaren egitura –bileren eta faseen agenda–

- think tankerako proposamen metodologikoa: ekintza-ikerketa, zer da, nola landuko da eta zer dokumentu sortuko dira prozesuan zehar (ekintza-ikerketaren proposamena # 0 lan dokumentuan laburbilduta jasotzen da, eta modu zabalagoan #1 Bileraren memorian jasotako "Eraldaketarako apustu metodologikoa" izeneko dokumentuan).

Proposamena aurkeztu ondoren, parte-hartzaileek aukera izan zuten proposatutako prozesuari buruzko ikuspegia emateko.

Gainera, azaldu zen taldearentzako proposamen tematikoak bi ardatz tematiko biltzen zituela. Ardatz tematiko nagusia (II. ardatza, epe luzerako lan ardatza), ardatz horretan oinarritzen da eztabaida taldearen zentzua eta helburua: ongizate egoeraren etorkizunak. Hala ere, ardatz berri bat (I. ardatza, epe laburrerako lan ardatza) agendan sartu zen, Covid-19aren pandemiak sortutako krisiari erantzuteko.

2) Eztabaida I. ardatz tematikoan: Covid-19a eta horrek gizarte zerbitzuetan eta politika publikoetan dituen ondorioak

Taldearen lehen bileran, eztabaida 1. ardatzean oinarritu zen. Horretarako:

- *Testuinguruan kokatzea.* Gaia testuinguruan jartzeko, # 1 lan dokumentua: *Covid agertoki desberdinei buruzko apunteak* izeneko agiria aurkeztu zen, datozen hilabeteetarako Covid-19aren etorkizuneko agertoki epidemiologiko posibleak planteatzen dituenak.
- *Taldeko hausnarketa: ikaskuntzak eta nola jokatu.* Taldean hausnarketa saio bat egin zen Covid-19aren inguruko ikaskuntzei buruz, Gipuzkoan izan duen eraginari buruz eta agertoki posibleen aurrean jarduteko moduari buruz.

Ondoren, taldeko hausnarketaren emaitzak dokumentu honetan sartuko lirateke: *"1. txostena. Gipuzkoan Covid-19aren krisiari aurre egiteko gomendioak"*.

Bileraren ondoren

I. ardatzean hasitako hausnarketarekin jarraitzeko eta hurrengo bileran ardatz berari buruz eztabaidatzen jarraitzeko, bileraren ondoren eta hurrengo bilera baino lehen:

- *Parte-hartzaileen ikuspegia galdesorta bidez jasotzea.* Lehenengo bilerako (2020-06-25) taldeko hausnarketan dinamikaren helburuak partzialki bete zirenez, Covid-19aren agertokiaren aurrean egin zitezkeen ekintzei buruzko ekarpen gutxi jaso baitziren (# 2 lan dokumentuan azaldutakoa), parte-hartzaileei posta elektronikoko bidezko galdetegi bat bidali zitzaizen beren ekarpenak jasotzeko. Parte-hartzaileen ekarpenak eta ekainaren 25eko bilerako taldeko hausnarketaren emaitzak "COVID-19aren krisiak Gipuzkoako gizartean izan duen eraginari buruzko txostenean" jaso ziren.
- *Ondorengo txostena prestatzea:* "COVID-19aren pandemia garaiko gizarte babeserako politikak. Nazioarteko joerak eta jardunbide egokiak". Taldeko hausnarketan, planteatu zen garrantzitsua zela, hausnarketa hori behar bezala egin ahal izateko, beste herrialde batzuk pandemiaren aurrean erreakzionatzen ari ziren moduari buruzko txosten bat edukitzea; horregatik, Aldundiko kide den eztabaida taldeko kide batek txosten hori prestatu zuen eta hurrengo bileran aurkeztu zuen.

Bi dokumentu horien laburpena # 2 lan dokumentuan jasota dago: *Egungo testuingurua eta berehalako etorkizuna: Covid-19aren erronkak*.

2020-07-23. 2. bilera. Joko arauekin lotutako alderdiak zabaltzea eta Covid-19aren krisiaren inpaktuari erantzuteko ekintzak lehenestea (I. ardatza)

Eztabaida taldearen bigarren bilera 2020ko uztailaren 23an egin zen. Tailer horrek aurreko bileran hasitako hausnarketarekin jarraitu zuen (eta, ondoren, parte-hartzaileekin posta elektronikoz izandako interakzioaren bidez), hain zuzen ere Covid-19aren inpaktuari buruzko hausnarketarekin (I. ardatza). Horrez gain, eztabaida prozesuaren joko arauen inguruko alderdiak argitu ziren. Bileraren edukia # 2 *Memorian* jasota dago.

- 1) *Eztabaida prozesuaren alderdiak zabalduz: agenda eguneratua, prozesuaren kontakizuna eta dokumentuen eta adituen zeregina prozesuan*

Think Tankeko prozesu horren ardura duen taldeko hainbat pertsonak eztabaida prozesuarekin lotutako alderdiei buruzko informazioa eman zuten:

- *Lan agenda* 2021eko maiatzera arteko hileroko saioetan landu beharreko eztabaida zikloaren faseen agenda eguneratua aurkeztu zen (1. ardatzaren hausnarketaren amaiera, prozesuaren esperimantazio esparrua ezartzea, eztabaida agenda elkarrekin diseinatzea, ardatzei buruz eztabaidatzea, prozesuari buruzko ebaluazioa eta gogoeta egitea), jarraian jasotzen dena, eta dokumentu honetan ondorengo atalak egituratzen dituen; izan ere, datetan zenbait desberdintasun izan arren, taldearen lana fase hauetan egituratu zen.

DATAK	HELBURUA
2020/07/23	COVID-19ari buruzko hausnarketa ixtea
2020/09/24	Esperimantazio markoa ezartzea prozesurako
2020/10/29	Elkarrekin diseinatzea ongizate estatuaren etorkizunei buruzko delibrazio agenda, esperimantazioan aurrera egin ahal izateko
2020ko azarotik 2021eko apirilera	Agendan adostutako ardatzei buruz eztabaidatzea eta eztabaida hori esperimantazioa eramatea
2021eko apirila	Prozesuaren jarraipenari buruzko ebaluazioa eta hausnarketa

- *Prozesuaren eta prozesuan sortutako dokumentuen kontakizuna.*

Aurreko bileran eta ondoren bidalitako galdetegian parte-hartzaileek egindako ekarpenak nola jaso ziren azaldu zen, baita prozesuan landuko diren lan dokumentuen funtzioa ere, prozesuaren bilakaera modu sintetikoan jaso nahi baitute.

- *Adituen zeregina prozesuan.* Eztabaida prozesuan kanpoko adituak sartuko zirela azaldu zen, eta taldearen bileretan hitzaldiak emango dituztela, taldeak landuko dituen gaiei buruz hausnartzen laguntzeko. Hurrengo bilerarako aditu posibleak proposatu ziren, eta parte-hartzaileei gonbita egin zitzaizkien pertsona interesgarrien proposamenak egiteko.

- 2) *Covid-19ak Gipuzkoan duen eraginari buruzko eztabaida (I. ardatza): irakaspenak, gomendioak, nazioarteko praktikak eta epe laburrean inplementatzeko ekintzak lehenestea*

Taldeak I. ardatz tematikoan zentratu zuen bere eztabaida, lehenengo bileran hasitako hausnarketarekin jarraituz. Horretarako:

- *Benchmarking aurkezpena.* Taldeko kideetako batek prestatutako "COVID-19aren pandemia garaiko gizarte babeserako politikak. Nazioarteko joerak eta jardunbide egokiak" izeneko txostenaren emaitzak aurkeztu ziren.


- *Parte-hartzaileen ikuspegiaren laburpena.* Taldeko partaideek Covid-19aren inguruan ikasitakoari buruz egindako ekarpenen emaitzak aurkeztu ziren (ekainaren 25eko bilerako ekarpenen eta bileraren aurretik bidalitako galdetegiaren erantzunen sistematizazioa).

- *Talde dinamika: ekintzak lehenestea.* Taldeak talde laneko dinamika bat egin zuen, epe laburrean (hurrengo 6 hilabeteetan) inplementatu beharko liratekeen hiru ekintza lehenesteko, ekintza horiek parte-hartzaileek saioaren aurretik proposatutako gomendioetatik eta ekintzetatik hautatuta.

Eztabaida saioaren emaitzak dokumentu honetan jasota daude: *1. txostena. Gipuzkoan COVID-19aren krisiari aurre egiteko gomendioak.*

Bileraren ondoren

Uztailaren 23ko bileran ekintzak lehenesteko egindako ariketaren dinamikaren emaitzak “politiken lehenetasun” gisa jasotzen dira *1. txostenean (Gipuzkoan COVID-19aren krisiari aurre egiteko gomendioak)*. Txosten hori eztabaida taldeko talde arduradunak egin zuen, taldean ardatz tematiko horren inguruan landutako edukiekin, eta biltzen ditu ikasitako irakaspenak, pandemiaren garaiko gizarte babeserako nazioarteko praktikak, epe luze eta laburreko estrategiak eta politiken lehenetasunak. Txosten hori egiteko prozesua txostenean jasotzen den grafiko honetan ikus daiteke, eta Etorbizuna Eraikizeko webgunean eskuragarri dago.



2020ko iraila. Prozesurako esperimentazio esparrua ezartzea eta esperimentaziorako eztabaida agenda elkarrekin diseinatzea

Talderako ezarritako I. zikloko lan faseen proposamenari jarraiki, irailean taldea zentratzen hasi zen talde gisa zuen asmoaren ardatz nagusian, hau da, trantsizioko gizarte politiken inguruko eztabaidan eta esperimentazioan. Taldea arazoaren esparrua ezartzen eta hurrengo bilerearako eztabaida agenda elkarrekin diseinatzen hasi zen, aurre egin beharreko erronkaren ardatz nagusiak definituz.

2020-09-24. 3. bilera. Covid-19ari buruzko gogoeta amaitzea (I. ardatza) eta ongizate egoeraren etorkizunei buruzko eztabaidarako metodologia eta ardatzak ezartzea (II. ardatza)

Taldearen hirugarren bilera 2020ko irailaren 24an egin zen. Bertan, eztabaida prozesuaren beraren alderdi metodologikoak jorratu ziren; eztabaidaren I. ardatz tematikoaren inguruko eztabaida itxi zen, taldearen ordura arteko lana bideratu zuena; eta lana II. ardatzean zentratu zen, ongizate egoeraren etorkizunei buruzkoan, Think Tankeko taldearen eztabaida eta esperimentazio foku nagusia baita. Bilera horren edukia #3 Memoriam jasota dago.

a) *Covid-19ari eta horrek gizarte zerbitzuetan eta politika publikoetan dituen ondorioei buruzko eztabaidaren itxiera: 1. txostena*

Think Tank taldearen talde arduradunak jakinarazi zuen *1. txostena* egin zela, taldeak ordura arte egindako lanaren emaitza gisa, eta, era berean, kanpoan eskatu zela Gipuzkoan Covid-19aren garaian gizarte politikek izandako eraginari buruzko txosten bat egitea, zeina taldearekin partekatuko baitzen amaitutakoan.

Gainera, proposatu zen saio guztietan Covid-19aren eraginari buruz hausnartzeko eta gomendioak ezartzeko tarte bat izatea.

b) *Ongizate estatuaren etorkizunak: arazoaren esparrua, esperientziak eta eztabaidarako ardatzak (agenda elkarrekin diseinatzea)*

Eremu horretan zentratutako eztabaidari ekiteko, lan proposamen metodologiko bat egin zen; landu beharreko arazoaren esperimentazioaren esparrua ezarri zen, gaia testuinguruan kokatuz (gizarte politiken ikuspegi berria eta arretaren eta zaintzen eredu oinarri gisa), eta ikuspegi eta esperientzia desberdinak aurkeztuz arazoari buruzko hausnarketa errazteko (arreta-eredu berri bat); eta talde dinamika bat egin zen etorkizunerako gizarte politiken agenda bat ezartzeko, eta horren inguruan, gero, Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuak 2021eko maiatzera arteko lan agenda zehatz bat proposatuko zuen.

- *Esperimentazio eta eztabaida prozesurako metodologia.* Think Tankeko talde arduradunak lan metodologia hau proposatu zuen: arazoa definitzea (nola garatu arreta eta zaintza eredu berri bat?); agenda bat elkarrekin definitzea (zeintzuk dira esperimentatu behar diren eremuak/arloak?); esperimentatzea, agenda bultza dezaketen proiektu esperimentalak definituz, eta agenda horretan Think Tank taldeko kideen inplikazioa bilatzea.

- *Esparruaren testuingurua eta erronkari buruzko hausnarketarako ikuspegiak eta esperientziak.* Think Tankeko talde arduradunak testuingurua jartzeko dokumentu bat prestatu zuen, *3. lan dokumentua: gizarte politiken norabide esperimentalak*, zeinak gogoetarako testuingurua ezartzen baitu (zahartzea eta iraupen luzeko zaintzak, eta ikuspegi ekosistemikoaren premia), proposamen bat egiten baitu esperimentazioaren eta gizarte politiken arteko harremana egituratzeko, eta hausnarketarako galderak planteatzen baititu. Dokumentu hori parte-hartzaileekin partekatu zen bilera baino egun batzuk lehenago, eta haren elementu nagusiak (pertsonarengan oinarritutako arreta eredu, zainketen ekosistema lokalizatuak, eta esperimentazio sozialeko paradigma eta ebidentzian oinarritutako politikak) bileran aurkeztu ziren, jorratu beharreko erronkaren esparru orokor gisa.

Gainera, *gonbidatutako aditu batek* (Mayte Sancho) *aurkezpen bat* egin zuen iraupen luzeko zaintza eredu berriaren etorkizunari buruzko hausnarketak partekatzeko.

Azkenik, taldeko bi kidek esparru horretan egiten ari diren proiektu esperimentalei buruzko aurkezpen bana egin zuten, adibide gisa erabil zitezten.

- *Talde dinamika, deliberazio* agendarako eztabaida ardatzak definitzeko. Aurkezpenen ondoren, lantaldekako dinamika bat egin zen pertsonarengan oinarritutako arreta eredu gizarte politiken beste eremu batzuetan aplikatzeko aukerari buruz hausnartzeko, eta hurrengo saioetarako (2020ko urritik 2021eko maiatzera) eztabaida ardatzen proposamen bat egiteko taldearen eztabaida agendarako.

Bileraren ondoren

Irailaren 24ko bileran taldeak eztabaidarako proposatutako ardatzak oinarritzat hartu zituen Think Tankeko talde arduradunak lan agenda bat proposatzeko. Biak (taldeko ariketaren

emaitzak eta proposatutako saioetako gaien agenda) # 4 lan dokumentua. Sortzen ari den agenda izeneko dokumentuan jaso ziren, eta gero parte-hartzaileekin partekatu zen.

Data	GAIA:
Azaroak 26	Pertsonak zentroan: pertsonalizazioa, eskubideak eta bizi-kalitatea
Abenduak 14	Zentrotik etxera: zentroak nola desinstituzionalizatu eta etxeetan laguntza nahikoa nola eman.
Urtarrilak 28	Mataza garbitzea: lurralde-antolamendua, eskumen-egitura eta erakundeen arteko koordinazioa.
Otsailak 25	Elkarlaneko gobernantza: ekosistemak eraikitzen (Hirugarren sektorea, konektatutako enpresak, unibertsitateak eta erakundeak eta erabiltzaileak, eta parte hartzea).
Martxoak 25	Sistemaren jasangarritasuna (benchmarking): joerak eta esperientziak.
Apirilak 29	Plataforma digitalak (teknologia berriak eta ekosistemen konektibitatea).
Maiatzak 27	Ebaluazio-ereduak eta ereduaren ebaluazioa: ebidentzia sortuz.
Ekainak 15	Liburu Zuria. Gizarte Politiken etorkizunak Gipuzkoan

2020ko urria – 2021eko maiatza. Erronkaren ardatzei buruzko eztabaida, lehen aldaketak, eta POAri buruzko lantaldea eratzea

Urritik maiatzera bitartean, ezarritako lan faseen agendari jarraituz, ardatz nagusia izan zen jorrotutako erronkaren inguruko eztabaida, taldeak aldeztutako erronkaren ardatzen inguruan lan eginez: pertsonalizazioa, erakundeen arteko koordinazioa, lankidetzazko gobernantza, sistemaren jasangarritasuna eta trantsizio digitala. Gainera, aldi horretan, pertsonarengan oinarritutako arretari buruzko lantalde bat eratu zen, gaia jorrotzean eztabaida taldeak identifikatutako alderdietan sakontzeko; halaber, taldearen ikaskuntzak bilduko zituen Liburu Zuriaren garapenean eta plangintzan aurrera egin zen, eta zaintzak ebaluatzen sare baterako proposamen bat modelizatu zen.

Pertsonarengan oinarritutako arreta

Esperimentazio eta eztabaida zentralerako fasearen lehen bi bilerak azaroan (2020-11-26) eta abenduan (2020-12-14) egin ziren, eta aldi horretan egindako lana pertsonarengan oinarritutako arretari buruzkoa izan zen, bai zerbitzuetan (azaroko saioa), bai etxean (abenduko saioa). Saio horietan egindako lanaren ondorioz, gerora, pertsonalizazioari buruzko lantalde bat eratuko litzateke, saio horietan identifikatutako alderdi garrantzitsuak lantzeko.

Hurrengo bileraren aurretik

Saioetarako lan agenda ezarri ondoren (2020ko irailaren 29ko bileran batera diseinatua), eta azaroko bileran landuko zen adostutako ardatzetako bati buruzko eztabaidarekin hasteko, Think Tankeko talde arduradunak galdetegi bat bidali zien parte-hartzaileei, aztertu beharreko gaiari, hau da, pertsonarengan oinarritutako arretari (POA) buruzko ikuspegia jasotzeko. Zehazki, galdetegiak galdera hauek planteatzen zituen: (1) zer esan nahi du sektoreka pertsonalizatzeak? (2) zer baliabide dira beharrezkoak? (3) zer eragin du hainbat sektoretan pertsonalizatzeak? Parte-hartzaileen erantzunen sistematizazioa bileran aurkeztuko litzateke, eztabaidarako osagai gisa.

2020-11-26. 4. bilera. Covidaren inpaktuaren kanpo-azterketa, eztabaida agendaren proposamena eta pertsonarengan oinarritutako arreta

Taldearen laugarren bilera 2020ko azaroaren 26an egin zen, modu telematikoa (pandemiak sortutako egoeraren ondorioz). Bileran, 2021eko maiatzera arteko eztabaida agenda aurkeztu zen, eta taldeak egindako lana artikulatuko duen Liburu Zuria egingo zela iragarri zen. Horrez gain, Covid-19aren inpaktuari buruzko kanpo-azterlan bat aurkeztu zen, eta pertsonarengan

oinarritutako arretari buruz eztabaidatzen hasi zen. Bilera horren edukia ondorengo dokumentuan jasota dago: *#4 Memoria*.

a) Prozesuari buruzko elkarrizketak: lan agenda eta eztabaida prozesuaren output gisa liburu zuri bat egiteko proposamena

Taldeko arduradun politiko nagusiak aurkeztu zuen 2021eko maiatzera arte proposatutako eztabaida agenda (*# 4 lan-dokumentuan* jasotakoa), aurreko bileran parte hartu zutenek egindako ekarpenetan oinarrituta osatu zena.

Data	GAIA:
Azaroak 26	Pertsonak zentroan: pertsonalizazioa, eskubideak eta bizi-kalitatea
Abenduak 14	Zentrotik etxera: zentroak nola desinstituzionalizatu eta etxeetan laguntza nahikoa nola eman.
Urtarrilak 28	Mataza garbitzea: lurralde-antolamendua, eskumen-egitura eta erakundeen arteko koordinazioa.
Otsailak 25	Elkarlaneko gobernantza: ekosistemak eraikitzen (Hirugarren sektorea, konektatutako enpresak, unibertsitateak eta erakundeak eta erabiltzaileak, eta parte hartzea).
Martxoak 25	Sistemaren jasagarritasuna (benchmarking): joerak eta esperientziak.
Apirilak 29	Plataforma digitalak (teknologia berriak eta ekosistemen konektibitatea).
Maiatzak 27	Ebaluazio-ereduak eta ereduaren ebaluazioa: ebidentzia sortuz.
Ekainak 15	Liburu Zuria. Gizarte Politiken etorkizunak Gipuzkoan

Era berean, iragarri zuen Foru Aldundiaren asmoa zela ongizate egoeraren etorkizunei buruzko Liburu Zuria egitea, taldeak egindako eztabaida prozesuaren emaitzak bilduko dituen.

b) Covid-19aren eragina Gipuzkoan (I. ardatz tematikoa)

Nahiz eta Covid-19aren eraginetan oinarritutako deliberazio prozesua irailaren 24ko bileran amaitu zen, azaroko bileran espazio bat eskaini zen Aldundiak, iraileko bileran aurreratu zen bezala, kanpoan enkargatu zuen Covid-19ak Gipuzkoan gizarte politiken eremuan izan zuen eraginari buruzko inpaktu azterlan baten eduki nagusiak partekatzeko. "Gipuzkoa COVID-19aren garaian" izeneko txostenaren (*# 4 Memoriaren c* eranskinean jasotako sintesia) helburua zen azterketa bat egitea Covid-19aren krisia ulertzeko Gipuzkoan, kudeaketari, inpaktuari eta ikasitako irakaspenei dagokienez, eta gomendioak eskaintzea, gero bileran aurkeztu zirenak.

c) Pertsonarengan oinarritutako arreta eredu (POA): zer den, inplikazioak, baliabideak, inpaktuak eta ekintzen lehenespena Gipuzkoan POA eredu bat sustatzeko

Bileraren zati handi bat pertsonarengan oinarritutako arretari buruzko eztabaidara bideratu zen. Gaia honako hauen bidez landu zen: gaia testuinguruan jartzea eta aditu baten txostenarekin hausnartzeko ekarpenak egitea; aurrez bidalitako galdetegiaren parte-hartzaileek gaiari buruz dituzten ikuspegi individualen laburpena aurkeztea; eta gogoetarako talde dinamika bat Gipuzkoan POA eredu bat sustatzeko ekintzak lehenesteko (ondoren, horren emaitza *# 5 lan dokumentua* izango litzateke).

- *Aditu txostena.* Gonbidatutako aditu batek (Teresa Rodríguez) POA ereduari buruzko aurkezpen bat egin zuen, terminoari buruzko alderdi eta azalpen kontzeptualak eta eredu aplikatzeko erronkak jasoz.

- *Parte-hartzaileek POAri buruz dituzten ikuspegiaren aurkezpena.* Think Tankeko talde arduraduneko pertsona batek aurkeztu zituen aurrez parte-hartzaileei bidalitako galdetegiaren emaitzak. Galdetegi horretan, parte-hartzaileen ikuspegia jaso nahi da hainbat punturen inguruan: pertsonalizatzeak zer esan nahi duen, zer baliabide behar diren eta sektore desberdinetan zer eragin duen.

- *Talde dinamika, Gipuzkoan POA ereduia sustatzeko ekintzak lehenesteko.* Eztabaida taldeak, talde txikiagotan banatuta, talde dinamika bat egin zuen, Gipuzkoako gizarte zerbitzuen sarean POA eredu bat sustatzeko 2021-2022an ezar zitezkeen gizarte politikako hiru ekintza proposatzeko eta lehenesteko. Ondoren, *# 5 lan dokumentuan* jasoko dira emaitzak. Taldeak, gainera, erabaki zuen hurrengo bileran gai horretan sakontzen jarraitzea, eta, horretarako, Covid-19ari buruzko hausnarketa alde batera uztea.

Bileraren ondoren

5 lan dokumentua. Zer da pertsonalizazioa POA ereduan? izeneko agirian jaso ziren, batetik, POAri buruz egindako lanaren edukia, galdetegiaren bitartez jasotako parte-hartzaileen ikuspegiarekin batera, eta, bestetik, azaroaren 26ko bilerako talde dinamikan egindako ekintzen lehenespena. Dokumentu horrek honako hauek biltzen ditu: pertsonalizazioa zer den, arreta pertsonalizatzeko zer baliabide behar diren, pertsonalizazioak arretan zer eragin duen, eta zerbitzuen pertsonalizazioa bultzatzeko zer ekintza ezar daitezkeen.

Gainera, dokumentu hori bilerako adituarekin (Teresa Rodríguez) partekatu zen, eta hark bere feedbacka eman zuen ondorengo agirian: *Zer da pertsonalizazioa POA ereduan? tailerraren emaitzak itzultzeko txostena* (feedback hori parte-hartzaileekin partekatuko zen hurrengo bileran, eta *# 6 Memoriaren* b eranskinean dago jasota).

2020-12-14. 5. bilera. Pertsonarengan oinarritutako arreta etxean: sakontzea eta ekintzen proposamena definitzea

Bosgarren bilera 2020ko abenduaren 14an egin zen, eta aurreko bileran hasitako baterako sorkuntzaren gaia izan zuen ardatz: pertsonarengan oinarritutako arreta. Aurreko bilerako eztabaida eremu instituzionaleko pertsonalizazioan zentratu bazen ere, oraingo honetan fokua etxeko arretan jarri zen. Bileran, halaber, eztabaida prozesuarekin lotutako alderdi batzuk eztabaidatu ziren. Bileran horren edukia ondorengo dokumentuan jasota dago: *#5 Memoria*.

a) *Prozesuari buruzko elkarrizketak: aldaketak dinamikan eta kanpoko adituen parte hartzea talde dinamikan*

Think Tankeko talde arduradunak jakinarazi zuen bi aldaketa egon zirela eguneko saioan, aurreikusitako agendari eta ohiko lan dinamikari zegokienez. Bi aldaketa horiek parte-hartzaileek egindako iradokizunen emaitza izan ziren. Alde batetik, hasiera batean adostu zen (irailaren 24ko bilera) bilera guztietan Covid-19ari buruzko hausnarketarako gune bat egongo zela, baina ardatz hori alde batera uztea erabaki zen. Bestalde, lan dinamika pixka bat aldatzea erabaki zen, gonbidatutako hizlariak beren ikuspegia eman zezaten egindako taldeko gogoetei buruz, hau da, gogoeta horiek aurkeztu ondorengo taldeko hausnarketan parte har zezaten (aurreko saioko ebaluazioen iradokizun gisa jaso).

b) *Pertsonarengan oinarritutako arreta etxean: ekintzen proposamena definitzea.*

Eztabaidaren ardatza izan zen pertsonarengan oinarritutako arreta etxean. Horretarako, alde batetik, taldeko arduradun nagusiak aurreko saioko emaitza nagusiak aurkeztu zituen, eta hortik sortu zen taldeak egin beharko lukeen lana POA ereduia lantzeko. Gainera, partekatu zen aurreko bilerako adituaren ikuspegia POA ereduari buruzko taldean prestatutako lan dokumentuaren inguruan (*# 5. dokumentua*). Bestalde, gonbidatutako aditu batek etxeko arretari buruzko bere ikuspegia eman zuen, bileran jorratu beharreko erronkaren dimentsio hori testuinguruan kokatzen lagunduz. Azkenik, taldeko lan dinamika bat egin zen etxean arreta pertsonalizatua ezartzeko ekintzak edo politikak definitzeko eta lehenesteko.

- *Aurreko saioaren ondorioak: POAren inguruan egin beharreko lana definituz.* Taldeko arduradun nagusiak aurreko saioko emaitza nagusiak aurkeztu zituen, eta taldeak honako ekarpen hauetan oinarrituta landu beharko lituzkeen lan ildoak proposatu zituen:

- o POA ereduaren marko kontzeptual komun bat definitzea gizarte politiken arlo guztietarako. Eredu horrek jaso beharko du nazioarte mailan balioztatutako adierazleen sistema bat.
- o Gipuzkoan dauden jardunbide egokiak eta esperientziak mapatzea, eta horien arrakasta maila, zailtasuna eta POA ereduan oinarritutako berrikuntzak ebaluatzea
- o Lurraldeko eta nazioarteko ebidentzian oinarritutako eredu kontzeptuala (Gipuzkoako eredu) adosteko lan metodologia bat definitzea.

Gainera, taldearen bideratzaileak aurkeztu zituen aurreko bilerako txostengile adituak #5 dokumentuari buruz eman zituen iritzien puntu nagusiak. Dokumentu hori pertsonarengan oinarritutako arreta ereduari buruz taldeak egindako ekarpenekin egin zen. Hori guztia ondorengo eztabaidarako testuinguruaren parte izango litzateke.

- *Aditu txostena: etxeko zainketak.* Gonbidatutako aditu batek (Alfonso Lara) etxeko zainketei buruzko aurkezpen bat egin zuen, eta hausnarketak eta ikuspegi bat eskaini zituen hainbat gairen inguruan: zaintzen arloko joerak eta zaintzen kontzeptuarekin lotutako egungo erronkak, Europar Batasunaren rola eta gaiaren egoera Europan, kalitatean oinarritutako zaintza eredu berri bat definitzeko erronka, etxeko zaintzarekin lotutako alderdiak (argudioak, esanahia, irizpideak eta abar) eta etxeko zaintza politiketarako eta programetarako beharrezkoa den paradigma aldaketa.

- *Taldeko lan dinamika, etxean arreta pertsonalizatua ezartzeko ekintzak edo politikak definitzeko eta lehenesteko.* Taldeak hausnarketa bat egin zuen, azpitaldetan banatuta, honako galdera honen inguruan: zer hiru ekintza edo politika mota ezar ditzakegu arreta pertsonalizatua emateko etxean? Amaieran, adituak ere bere ikuspegia eman zuen osoko bilkuran partekatu ziren parte-hartzaileen ekarpenei buruz. Emaitzak Liburu Zurian sartzeko jasoko lirateke.

Erakundeen arteko koordinazioa eta Think Tankaren 2021eko agenda

Eztabaida taldeak jorratu zuen hurrengo gaia izan zen lurraldeen eta erakundeen arteko koordinazioa arreta ekosistemak sortzeko. Hori izan zen 2021eko urtarrilaren 28ko bileran landu zen gaia, eta, bilera berean aurkeztu zen Think Tankerako 2021eko jardueren agenda.

Hurrengo bileraren aurretik

Agendako hurrengo gaiari, hau da, zaintza ekosistemetarako erakundeen arteko koordinazioari buruzko eztabaidari ekiteko, eta parte-hartzaileen ikuspegia biltzeko, galdetegi bat bidali zitzaion, Gipuzkoako zaintza eredu baten ezaugarriari eta horiek bultzatzeko beharrezkoak diren erakundeen eskumenei eta koordinazio mekanismoei buruz galdetzeko. Zehazki, galdera hauek egin ziren: zeintzuk izango lirateke Gipuzkoako Lurralde Historikoko arreta eta zaintza eredu berri baten hiru ezaugarri nagusiak? Zeintzuk izango lirateke erakundeek behar dituzten eskumenak arreta eta zaintza eredu berriaren hiru ezaugarri nagusi horiek sustatzeko? Zeintzuk izango lirateke erakundeen arteko koordinazio mekanismo egokiak arreta eta zaintza eredu berriaren hiru ezaugarri nagusi horiek sustatzeko? Galdetegiaren emaitzak dokumentu honetan sistematizatu ziren: # 6 dokumentua. *Lurralde trantsizioa: lurralde antolaketa, eskumenen egitura eta erakundeen arteko koordinazioa.*

Bestalde, Gizarte Politiketako Departamentuak, une horretan gizarte berrikuntzarako laguntzen deialdia egiteko oinarriak prestatzen ari zenak, programaren zirriborroa partekatu zuen taldeko

parte-hartzaileekin (posta elektronikoz), eta ekarpenak egiteko eskatu zien, haien ikuspegia eman ahal izateko programaren diseinuari.

2021-01-28. 6. bilera. Arreta ekosistemak sortzeko koordinazioa hobetzeko ekintzen proposamena eta Think Tankaren 2021eko agenda

2021eko urtarrilaren 28ko bileran, eztabaida prozesuarekin lotutako alderdiak jorratu ziren (partaideak, jardueren agenda), eta eztabaidaren gaia izan zen lurraldeen eta erakundeen arteko koordinazioa arreta ekosistemak sortzeko. Bilera horren edukia ondorengo dokumentuan jasota dago: #6 Memoria.

a) Eztabaida prozesuari buruzko elkarrizketak: 2021eko agenda, partaideak, taldearen eragina programetan

Think Tankeko taldeko arduradun nagusiak informazio garrantzitsua partekatu zuen taldearen jarduerari, osaerari eta emaitzei buruz:

- *2021erako agenda.* Think Tankerako agenda proposamen bat egin zen 2021erako, honako hauek barne hartuta: 1) ongizate egoeraren etorkizunei buruzko liburu zuri bat egitea; 2) Think Tankean oinarritutako POAren ikuspegi berri batean oinarritutako proiektu experimental bat garatzea, taldeak aurrez zehaztutako zereginak bilduko dituen (eredu kontzeptual bat garatzea, jardunbide egokien mapaketa bat eta ebaluazio eredu bat; 3) barne sentsibilizazioko tailerrak egitea Gizarte Politiketako Departamentuan; 4) Think Tankaren gomendioak jasotzea gizarte berrikuntzako proiektuetarako laguntzetan; 5) gaiari buruzko mahai bat antolatzea kongresu batean; 6) parte hartzea Gipuzkoa 2030 Agendan. Trantsizioko gizarte politikak.
- *Taldearen osaera: partaide berriak.* Talde arduradunak beste pertsona batzuk sartzea proposatu zuen (unibertsitateetakoak eta Eusko Jaurlaritzakoak), eta parte-hartzaileak animatu zituen kide berriak iradokitzen.
- *Programa bat aldatzea Think Tankaren ondorioz.* Diputatuak jakinarazi zuen aldaketak egin zituztela Departamentuak bilera baino lehen parte-hartzaileekin kontrastatu zituen laguntzen deialdiaren oinarrietan (lehen adierazi den bezala). Bere hitzetan: "ematen diozuen garrantzia ikusita, lantzen ari garen oinarrietan puntuazioa aldatu dugu, markatu dituzuen irizpideetan oinarrituta" (# 6. Memoriaren laburpena).

b) Lurralde trantsizioa: lurralde antolaketa, eskumenen egitura eta erakundeen arteko koordinazioa. Koordinazioa hobetzeko proposamenak

Bileraren gaia erakundeen eta lurraldeen arteko koordinazioa izan zen. Parte-hartzaileek galdesortaren bidez eman zuten gaiari buruzko lehen ikuspegia. Bileran, lehenik eta behin, gonbidatutako aditu batek aurkezpen bat egin zuen, gaia kokatzen eta hausnarketarako hainbat elementu eskaintzen lagundu zuena, eta talde dinamika bat egin zen, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko proposamenak definitzen bideratua:

- *Aditu txostena: lurralde antolaketa, eskumenen egitura eta erakundeen arteko koordinazioa.* Aditu batek (Manuel Aguilar) gaia testuinguruan kokatu zuen aurkezpen baten bidez. Aurkezpen horretan, hainbat gai landu zituen: zentralizazioa eta deszentralizazioa eta Europako gizarte zerbitzuetako eredu desberdinak, maila anitzeko gobernu-sistemen mailakatzea eta koordinazioa, mailakatze eraginkorrerako mekanismoak, sektoreen arteko koordinazioa eta beste leku batzuetako ekimen interesgarriak.
- *Taldeko lan dinamika: koordinazioa hobetzeko proposamenak.* Taldeak, azpitaldetan banatuta, ekintza proposamen batzuk egin zituen koordinazioa hobetzeko, hausnartu ondoren

honako galdera honi erantzunez: ekosistemak sortzeko, zer hiru proposamen egin daitezke lurraldeen arteko koordinazioa hobetzeko? Gainera, adituak, aurreko saioan hasitako dinamikari jarraituz (kanpoko gonbidatuek ondorengo talde hausnarketetan parte hartzea), parte-hartzaileen gogoetei buruzko ikuspegia eman zuen. Dinamikaren emaitzak Liburu Zurian sartzeko bilduko lirakeke.

Lankidetzazko gobernantza, gizarte politiken jasagarritasuna, ebaluazio agentzia, eta pertsonarengan oinarritutako arretari eta ebaluazio agentziari buruzko lantaldea sortzea

Taldeak 2021eko otsailean eta martxoan egindako bileretan, agendan bildutako bi gaiari buruz eztabaidatu zen: nola sustatu lankidetzazko gobernantza gizarte politikan, eta gizarte zerbitzuen jasagarritasuna eta finantzaketa. Gainera, aldi horretan taldekide berriak sartu ziren, POAri buruzko lantalde bat eratu zen gai horri buruzko urriko eta azaroko bileretan identifikatutako jarduera premiei erantzuteko; zaintzak ebaluatzeko sare bat bultzatzeko asmoa iragarri zen, eta aurretik egindako beste proposamen bati buruzko informazioa eman zen, elkarrizketa zibileko mahaiari buruzkoa, hain zuzen ere.

Otsailaren 25eko bileraren aurretik

Lankidetzazko gobernantzaren gaia lantzen hasteko, gaiari buruz eztabaidatzeko bilera egin aurretik, parte-hartzaileei galdetegi bat bidali zitzaion, honako gai honi buruz: nola sustatu lankidetzazko gobernantza gizarte politikan? Galdetegi horretan ondorengo gaiei buruzko galderi erantzun behar zieten: 1.- baldintzak, zein dira, zure ustez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte politikak garatzeko lankidetzazko gobernantza errazten edo oztopatzen duten baldintzak?; 2.- tresnak, zure ustez, zein dira Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte politiken garapenerako lankidetzazko gobernantza garatzeko tresna/bitarteko egokienak? (tresnak/bitartekoak: sareak, foroak, elkarrizketa-mahaiak, klusterrak, etab.); 3.- eraginak: zer eragin positibo eta negatibo espero daiteke lankidetzazko gobernantzatik Gipuzkoako Lurralde Historikoan gizarte politikak garatzeko? Erantzunen sistematizazioa # 7 lan dokumentuan jasota dago, eta otsaileko bileran partekatu zen.

2021-02-25. 7. bilera. Nola bultzatu lankidetzazko gobernantza gizarte politikan, kide berriak sartzea, POA lantaldea sortzeko erabakia eta elkarrizketa zibileko mahaiaren aurrerapenak

Eztabaida taldearen seigarren bilera 2021eko otsailaren 25ean egin zen. Taldearen eztabaida lankidetzazko gobernantzaren zentratu zen. Bilera horretan, taldekide berriak sartu ziren, eta eztabaida prozesuaren alderdi garrantzitsu bat jorratu zen: Think Tankeko proposamen batetik abiatuta POA lantalde bat sortzeko erabakia, eztabaida taldeak hasitako lanean sakontzeko. Gainera, elkarrizketa zibileko mahai bati buruzko beste proposamen baten aurrerapenari buruzko informazioa eman zen. Bilera horren edukia #7 Memorian jasota dago.

- a) *Eztabaida prozesuari buruzko elkarrizketak: kide berriak sartzea, POA lantaldea sortzeko erabakia eta elkarrizketa zibileko mahaiaren aurrerapenak*

Think Tankeko talde arduradunak iragarri zuen (aurreko bileran proposatu zen bezala) lau pertsona berri sartuko zirela taldean: Eusko Jaurlaritzako ordezkari bat, gizarteratzeko enpresa bateko pertsona bat eta bi unibertsitatetako bi ordezkari.

Gainera, talde arduradunak Covid-19aren inpaktura bideratutako lehen bileretan (# 1 txostenean jasoak) eta pertsonarengan oinarritutako arretaren inguruan taldeak garatutako lanean egindako bi proposamenen berri eman zuten:

- *POAri buruzko lantaldea.* Gizarte Politiketako Departamentuko (eta eztabaida talde horretako) arduradunak jakinarazi zuten Departamentuak bere egiten zuela eztabaida taldeak egindako proposamena, gizarte politika guztietarako POA eredia esploratzeko eta horretarako lantalde bat sortzeko premiari buruzkoa. Think Tankeko pertsonak osatutako talde esperimental bat litzateke.

- *Elkarrizketa zibileko mahaiaren inguruko aurrerapenak.* Arduradunak, halaber, gizarte politikak diseinatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko kontraste gisa elkarrizketa zibileko mahai bat sortzeari buruzko proposamen baten berri eman zuten. Mahai hori Think Tanka baino lehen lantzen ari zen, baina Think Tankeko lehenengo bileretan sortu zen proposamen gisa. Arduradunak jakinarazi zuten zer aurrerapen egin ziren arau baten bidez ezartzeko, eta elkarlanean garatzeko asmoa zegoela.

b) *Lankidetzazko gobernantza: nola bultzatu lankidetzazko gobernantza zainketen tokiko ekosistemarako, eta zer egin ezagutza eta lidergo desberdinak integratzeko*

Eztabaida lankidetzazko gobernantzan zentratu zen. Alde batetik, bi adituk (taldeko kideak) gaiari buruzko hausnarketak, ikaskuntzak eta esperientziak partekatu zituzten. Gainera, parte-hartzaileek hausnarketa egin zuten eta beren ikuspegiak aurkeztu zituzten bileraren aurretik lankidetzazko gobernantzari buruz bete zuten galdetegiaren bidez. Galdetegi horren emaitza nagusiak ere bileran partekatu ziren. Azkenik, taldeak lankidetzazko gobernantzaren lidergoari eta ezagutzari buruz eztabaidatu zuten.

- *Parte-hartzaileen ikuspegia: Gipuzkoako lankidetzazko gobernantzaren palankak.* Taldearen dinamizatzaileak partekatu zituen parte-hartzaileei aurrez bidalitako lankidetzazko gobernantzari buruzko galdetegian jasoteko erantzunen emaitzetako batzuk (# 7 lan-dokumentuan jasoak), eta, zehazki, Gipuzkoan zaintzarako tokiko ekosistemak sustatzeko lankidetzazko gobernantza bultzatuko duten palanketan jarri zuten arreta.

- *Lankidetzazko gobernantzari buruzko txostena, gakoak eta adibideak.* Bi adituk (taldeko kideek) lankidetzazko gobernantzari buruzko aurkezpen bat egin zuten. Lehenik eta behin, kontzeptuari buruzko elementu batzuk partekatu eta argitu zituzten, baita lankidetzazko gobernantzarako gakoak ere; eta, ondoren, Gipuzkoako gizarte politiken arloko adibide praktikoak eta kasu horietatik ateratako ikaskuntzak.

- *Taldeko dinamika: lankidetzazko gobernantzan ezagutzak eta lidergoa konbinatzeari buruzko hausnarketak eta proposamenak.* Taldeak, azpitaldetan banatuta, eztabaidatu zuten dinamizatzaileak lankidetzazko gobernantzan sortzen diren tentsio gisa proposatu zituen bi gairen inguruan: ezagutzen arteko asimetria eta lidergo globalaren eta tokiko lidergoaren arteko tentsioa. Arazoa kokatu ondoren, taldeek tokiko ekosistemetan ezagutza adituaren eta ez-adituaren garrantziaren inguruan eztabaidatu zuten: 1) honako galdera honi erantzunez: zein da garrantzitsua den ezagutza maila (tokiko ekosistemetan), aditua edo ez-aditua?; eta 2) hiru tresna proposatuz lidergoak eta ezagutzak konbinatzeko.

Lankidetzazko gobernantzari buruzko hausnarketaren emaitzak (bai galdetegiaren emaitzak, bai tallerrean ezagutzaren eta lidergoen inguruan egindako hausnarketaren emaitzak) # 7 lan dokumentuan jaso ziren.

Hurrengo bileraren aurretik

Hurrengo eztabaida gaia, gizarte politiken jasangarritasuna, lantzen hasteko, parte-hartzaileei galdetegi bat bidali zitzaien, gizarte zerbitzuen finantzaketa nola hobetu eta jasangarritasuna nola bermatu azaltzeko. Galdetegiak hiru galdera zituen, taldearen ikuspegia ezagutzeko honako puntu hauen inguruan: 1) azken 20 urteetan gizarte zerbitzuetan egindako gastuaren hazkundera azaltzen duten arrazoiak; 2) gure gizarte zerbitzuen ereduaren indarguneak eta ahuleziak, egindako gastuaren ikuspegitik; eta 3) lehentasunezko arloak berrikuntzako gizarte politikak finantzatzeko, eta arreta eta zainketa jasangarrien eredu berrirako trantsizioa bultzatzeko. Erantzunen sistematizazioa # 8 lan dokumentuan jasoko litzateke.

2021-03-24. 8. bilera. Gizarte politiken jasangarritasuna, POA taldea eratzea, Liburu Zuriaren kronograma eta ebaluazio sare bat bultzatzea

Eztabaida prozesuaren zortzigarren bilera 2021eko martxoaren 24an egin zen, eta # 8 memorian jasota dago. Eztabaidaren gaia gizarte politiken jasangarritasuna izan zen. Gainera, eztabaida prozesuari berari eta haren emaitzei buruzko alderdi garrantzitsuak ere jorratu ziren: POAri buruzko lantaldearen eraketa, taldearen ikaskuntzak bilduko zituen Liburu Zuria egiteko plangintza, eta politiken ebaluazioa bultzatzeko taldetik sortu zen beste proposamen baten modelizazioa, ebaluazio agentzia bat.

a) Eztabaida prozesuari buruzko elkarrizketak: POAri buruzko taldea eratzea, Liburu Zuria planifikatzea eta ebaluazio agentzia bultzatzea

Think Tankeko talde arduradunak Think Tankeko eztabaida taldearen lanetik sortutako hiru ekintzen berri eman zuen:

- **POAri buruzko lantaldea eratzea.** Aurreko bileran aurreratu zen bezala, martxoan lantalde bat eratu zen aztertzeko ea POA ereduak gizarte politiken multzoan ezar daitezkeen. Eztabaida taldeko arduradunak taldea eratu zela jakinarazi zuen, eta, horrez gain, taldea nork osatzen duten eta 2021eko ekainera arte zer lan-plan izango duen azaldu zuen.
- **Liburu Zuriaren kronograma.** Talde arduradunak Liburu Zuria –eztabaida taldeak egindako lana bilduko du– egiteko prozesuaren berri ere eman zuen, 2021eko abenduan ofizialki aurkeztu arte egin beharreko urratsak eta datak zehaztuz. Jarraian, plangintza irudikatzen duen grafikoa ageri da.



- **Ebaluazio agentzia sortzeko bultzada.** Think Tankeko lehen saioetan gizarte politiken ebaluazioan sakontzeko egindako beste proposamen bati erantzunez, taldeko arduradunak jakinarazi zuen ebaluazio agentzia edo sare bati bultzada emateko asmoa zegoela, sareko ebaluazio eredu bat diseinatzeko eta garatzeko, hainbat antolakunde, erakunde, sektore eta

erabiltzaile integratuz. Halaber, iragarri zuen hurrengo aldian Think Tanka ebaluazio nodoa izango zela, eta sareko ebaluazio eredu horretan funtsezko rola izango zuela.

b) Gizarte politiken jasangarritasuna: lehentasunezko inbertsio arloak definituta

Ongizate egoeraren etorkizunei buruzko eztabaida gizarte politiken jasangarritasunaren ingurukoa izan zen bilera horretan. Horretarako, taldeko eta Aldundiko kide den aditu batek Euskadiko gizarte politiken finantzaketari buruzko aurkezpen bat egin zuen. Bestalde, eta bileraren aurretik parte-hartzaileek finantzaketa hobetzeko moduari buruz bete zituzten galdetegiari emandako erantzunetatik abiatuta (#8 dokumentuan jasotakoak), taldeak dinamika bat egin zuen gizarte zerbitzuen jasangarritasunerako inbertsio arlo estrategikoak zehazteko.

- *Euskadiko gizarte zerbitzuen gastuari, finantzaketari eta jasangarritasunari buruzko txostena.* Taldeko eta Aldundiko kide den aditu batek aurkezpen bat egin zuen. Aurkezpenean, Euskadiko gizarte zerbitzuetako gastuaren bilakaerari eta osaerari buruzko datu orokorrak eman ziren, zahartzeari lotutako datuak bereziki kontuan hartuta; gizarte zerbitzuen finantzaketa tresnak eta aukerak aztertu ziren, beste herrialde batzuetako esperientzian oinarrituta; eta jasangarritasunaren kontzeptuari eta gizarte zerbitzuetan duen aplikazioari buruzko gogoetak egin ziren.

- *Taldeko dinamika: gizarte zerbitzuen jasangarritasunerako inbertsio publiko-pribatuko arlo estrategikoak definitzea.* Taldeak, azpitaldetan banatuta, hausnarketa bat egin zuen honako galdera honi erantzuteko: zein dira gizarte zerbitzuen jasangarritasunerako inbertsio publiko-pribatuko hiru arlo estrategikoak? Horretarako, bideratzaileak aurkeztu zituen galdeketetan parte hartu zutenek gizarte politikak finantzatzeko identifikatu zituzten lehentasunak. Ondoren, taldeko hausnarketa horren emaitzak Liburu Zuriari sartuko lirateke.

Hirugarren sektorearen digitalizazioa, etorkizunen diseinua eta Think Tankaren lehen zikloaren ebaluazioa

Apirilean eta maiatzean, ongizate egoeraren etorkizunen erronkari buruz eztabaidatzen jarraitu zen. Alde batetik, hirugarren sektorearen digitalizazioan jarri zen arreta, eta, bestetik, hausnarketa eta ariketa egin zen etorkizun probableen eta egokien inguruan eta horretara iristeko ekintzen inguruan. Gainera, eztabaida taldearen emaitza izango zen Liburu Zuriaren aurkibidea definitu zen, eta Think Tankaren ebaluazioa egin zen lana baloratzeko eta hurrengo zikloa diseinatzeko (ebaluazio hori zehatzago deskribatzen da azken atalean).

Hurrengo bileraren aurretik

Hirugarren sektorearen trantsizio digitalari buruzko eztabaida egiteko, ohiko lan dinamikari jarraituz, galdetegi bat bidali zitzaion parte-hartzaileei. Galdetegian parte-hartzaileei eskatzen zitzaion honako honi buruzko ikuspegia emateko: 1. Zer abantaila eta desabantaila ditu Gipuzkoan arreta eta zaintza digitalizatzeak? 2. Zein dira Hirugarren Sektorea digitalizatzeko estrategia batean txertatu beharreko dimentsio nagusiak? eta 3. Zer dimentsio izan behar dituzte plataforma digitalek erakundeak, zerbitzuak eta erabiltzaileak konektatzeko? Parte-hartzaileen erantzunak #9 lan-dokumentuan - Plataforma digitalak (ekosistemak) eta Trantsizio Digitala (erakundeak) sistematizatu ziren.


2021-04-29. 9. bilera. Liburu Zuriaren aurkibidea eta hirugarren sektorean trantsizio digitala sustatzeko ekintzak

Taldearen bederatzigarren bilera 2021eko apirilaren 29an egin zen, eta hirugarren sektorearen digitalizazioan oinarritu zen. Gainera, jakinarazi zen taldean egindako lanaren ebaluazioa egingo zela, eta, horretarako, galdetegi bat bidaliko zitzailela parte-hartzaileei; eta taldearen

ikaskuntzak sistematizatuz egingo den Liburu Zuriaren aurkibide analitikorako proposamena egin zen. Bilera horren edukia ondorengo dokumentuan jasota dago: **#8 Memoria**.

- a) *Prozesuari buruzko elkarrizketak: liburu zuriaren aurkibidea eta Think Tanka ebaluatzeko proposamena*

Think Tank taldeko arduradun nagusiak aurkeztu zuen eztabaida taldearen ikaskuntzekin garatuko den Liburu Zuriaren aurkibidea, eta 7 kapitulu ditu.



Gainera, Aldundiko taldeak jakinarazi zuen Think Tankaren ebaluazioa egingo zela, eztabaida ziklo honen diseinuan aurreikusita zegoen bezala. Horretarako, gogorarazi zuen zeintzuk ziren helburuak eta zein izan den Think Tankaren estrategia. Ebaluazioa egiteko, parte-hartzaileek galdetegi bat jasoko lukete, honako hauek ebaluatzeko: a) Think Tankeko helburuen betetze maila; b) saioak eta funtzionamendua; c) lortutako produktuak.

- b) *Trantsizio digitala: nola sustatu hirugarren sektorearen digitalizazioa*

Trantsizio digitala izan zen bileraren gaia. Hirugarren sektorean trantsizio digitala sustatzeko ekintzak proposatzeko eta gogoeta egiteko helburuarekin, gaia testuinguruan kokatu zen bi adituk egindako aurkezpen batetik abiatuta, eta talde dinamika bat egin zen.

- *Aditu txostena: plataforma digitalak eta trantsizio digitala.* Taldeko hausnarketa egin aurretik, teknologia digitalen ikerketa aplikatuko zentroa den Vicomtecheko bi pertsonak (horietako bat, Think Tank taldeko kidea) testuinguruan jarri zuten gaia. Aurkezpen bat egin zuten jarduketa eremuei buruz, bai erabiltzaile mailan, bai antolakuntza/profesional mailan; joera teknologikoei eta aukerei eta dauden erronkei buruz; antolakundeen teknologien eremuko ikuspegi europarrari buruz; eta jarduketa beharrei buruzko hausnarketa egin zuten eta horren inguruan duten ikuspegia azaldu zuten.

- *Talde laneko dinamika: hirugarren sektorearen trantsizio digitala bultzatzeko ekintzak.* Taldeak, azpitaldetan banatuta, eztabaidatu zuen hirugarren sektorean trantsizio digitala sustatzeko ekintza proposamenak egiteko, galdera honi erantzunez: zeintzuk dira hirugarren sektorean trantsizio digitala bultzatzen duten ekintzak? Ondoren, talde guztiek batera horren inguruan hausnartu zuten hizlarien feedbackarekin. Taldeko hausnarketaren emaitzak Liburu Zurian sartzeko bilduko lirateke.

Bileraren ondoren

Bileraren ondoren, eta 2021eko maiatzean egindako hurrengo bileraren aurretik, alde batetik, parte-hartzaileek Think Tankaren ebaluazioa egiteko galdetegia jaso zuten. Bestalde, eta etorkizunen diseinuan oinarritutako hurrengo bileraren eztabaida prestatze aldera, banaka egiteko ariketa bat jaso zuten. Jaso zuten dokumentuak (*# 10 Memorian* jaso) honako hauek biltzen zituen: hainbat etorkizun motaren kontzeptualizazioa, lan hipotesi bat, ariketaren xedea, eta ariketa egiteko galderak. Laburbilduz, honako galdera hauek egiten ziren: 1) COVID-19aren krisiaren eragina zaintza eta gizarte politiken eremuan (2021eko ikusmuga); 2) 2030ean gertagarriena den egoera COVID-19aren krisiaren ondorioz; 3) nolakoa izango den zaintza eredia 2050ean Gipuzkoan; 4) Zer etorkizun probable eta hobe hartzen ditu posibletzat Think Tankak? Zer bost jarduketa ardatz bultzatu behar dira etorkizun hobeetarako trantsizioa bultzatzeko? Galdera guztiekin batera, ariketa egiteko gidak eta txantiloak zeuden.

2021-05-27. 10. bilera. Etorkizunak diseinatzen: etorkizun hobera iristeko ekintzak zehaztea, eta Think Tankeko lehen zikloaren ebaluazioaren ondorioak

Taldeak 2021eko maiatzaren 27an egindako hamargarren bileran, *# 10 memoria*n jasotakoan, bi alderdi jorratu ziren. Alde batetik, Think Tankaren ebaluazioaren emaitzak partekatu ziren (*# 10 lan dokumentuan* jasotzen dira), bai eta ebaluazio horretatik eratorritako gomendioak ere, Think Tankeko talde arduradunak horien gainean jarduteko hautatu zituenak eta dokumentu honen azken atalean zehazten direnak. Bestalde, eztabaidaren ardatza etorkizunen diseinua izan zen, eta bileraren aurretik galdetegi baten bidez hasitako lanari jarraipena eman zitzaion. Horretarako, Aldundiak partekatu zituen une hartan egiten ari ziren gizarte politiken 2030 Agendaren edukia eta hura egiteko prozesua.

a) *Prozesuari buruzko elkarrizketak: Think Tankaren ebaluazioaren emaitzak eta hobetzeko gomendioak.*

Think Tank taldeko arduradun nagusiak ebaluazioaren emaitzen ondorio nagusiak aurkeztu zituen. Hori zehatzago deskribatzen da dokumentu honen azken atalean. Gainera, Think Tank 2021-2023 delakoaren ekintza planaren proposamena laster egingo zela jakinarazi zen.

b) *Etorkizunen diseinua: etorkizun probableak eta hobeak, eta 2050erako ekintzak definitzea*

Bileraren eztabaida gizarte politiketarako etorkizunen diseinuan oinarritu zen. Horretarako, lehenik eta behin, Aldundiko taldeko arduradun nagusiak 2030 Agendari buruzko aurkezpen bat egin zuen, eta, horretarako, parte-hartzaileen ikuspegia eskatu zuen. Bestalde, Think Tank taldeko talde arduradunak etorkizunen diseinuari buruz egindako banakako ariketen emaitzen laburpena egin zuen. Ariketa horiek bileraren aurretik eskatu ziren. Azkenik, taldeko dinamika bat egin zen, 2050erako hautatutako etorkizun hobera iristeko inplementatu beharreko ekintzak definitzeko.

- *Trantsizio politiketarako Gipuzkoako 2030 Agenda aurkeztea.* Diputatuak une hartan lantzen ari ziren gizarte politiken 2030 Agendaren funtsezko alderdiak aurkeztu zituen, bai eta

agenda hori egiteko urratsak ere. Hori guztia dokumentu batean amaituko da, hainbat talderekin ardatz nagusiak kontrastatu ondoren. Planaren ardatzak aurkeztu zituen, epe labur, ertain eta luzekoak, eta partaideei eskatu zien ardatzei buruzko kontrastea eta balorazioa egiteko.

- *Parte-hartzaileen ikuspegiaren laburpena, balizko eta etorkizuneko agertokiei buruz.* Taldeko dinamizatzaileak aurkeztu zituen parte-hartzaileek bakarka egindako ariketaren emaitza nagusiak (# 11 dokumentuan jasota daude). Ariketa hori bileraren aurretik egin zen, eta *Etorkizunen diseinua: etorkizun probableak eta hobeak* ardatz tematikoaren ingurukoa zen. Laburpen bat egin zuen, eta, bertan, parte-hartzaileek etorkizun diferenteen inguruan gehien partekatu duten ikuspegia nabarmendu zuen: 2021ean, aldaketa handirik gabe; 2030ean, teknifikazioa, efizientzia, desprofesionalizazioa eta sistemen deskoordinazioa; eta 2050ean agertzen diren bi eredu edo ikuspegi, eredu komunitarioagoa eta eredu teknologikoagoa.

- *Taldeko dinamika: 2050ean etorkizun hobe batera iristeko ekintzak.* Taldeak, azpitaldetan banatuta, ordubetez lan egin zuen; lehenik, 2050eko agertokietako bat aukeratzeko (eredu komunitarioa vs. teknologikoa), eta funtsezko hiru ekintza definitzeko (orain ezar litezkeenak), 2050erako etorkizun hobe batera iristeko.

Taldeko dinamikan proposatutako ekintzak eta galdetegiaren bidez jasotako parte-hartzaileen ikuspegiaren emaitzak # 11 dokumentuan jaso ziren. Dokumentu horretan, halaber, etorkizunak diseinatzeke ariketaren helburua eta jarraitutako metodologia jasotzen dira.

2021eko maiatza – ekaina. Ebaluazioa, POA taldearen ondorioak eta lehen zikloaren itxiera

Lehen deskribatu den bezala, maiatzean Think Tankaren ebaluazioa egin zen, I. ziklorako lan faseen proposamenean aurreikusita zegoen bezala (2021eko uztailaren 23ko bileran adostu zen), eta ebaluazio prozesu horren emaitzak taldean partekatu ziren 2021eko maiatzaren 27ko bileran. Gainera, ekaineko bileran, pertsonalizazioari buruzko alderdi zehatzak lantzeko sortutako POAri buruzko lantaldeak egindako lanaren emaitzak partekatu ziren. Horrela, eztabaida prozesuaren lehen zikloari amaiera eman zitzaion, taldeak egindako gogoetak eta proposamenak biltzen dituen azken produktua aurkeztu gabe: Ongizate egoeraren etorkizunei buruzko liburu zuria (iragarri zenez, azkenean irailean egingo zen).

2021-05-27. 10. bilera. Think Tankeko lehen zikloaren ebaluazioaren ondorioak, eta etorkizunak diseinatzea: etorkizun hobera iristeko ekintzak zehaztea

Lehen azaldu bezala, 2021eko maiatzaren 27an egindako bileran, etorkizunen diseinuari buruzko hausnarketa egin zen (aurreko atalean deskribatu da). Gainera, bilera horretan taldeak galdetegi baten bidez egindako ebaluazioaren emaitzak partekatu ziren. Ondoren, emaitza horiek eztabaida taldearen hurrengo ziklorako hobekuntza gomendio gisa erabiliko ziren.

a) *Prozesuari buruzko elkarrizketak: Think Tankaren ebaluazioaren emaitzak eta hobetzeko gomendioak.*

Think Tankeko lantaldeko arduradun nagusiak ebaluazioaren emaitzen ondorio nagusiak aurkeztu zituen (# 10 lan dokumentuan jasotakoak). Dokumentu hori parte-hartzaileekin partekatuko zen posta elektronikoki bidez, eta horietatik Think Tankaren ikuspegi orokor positiboa ateratzen da. Emaitzen lau elementu nabarmendu zituen, eta taldeak ebaluazioaren ondorioetan oinarrituta egindako hobetzeko 7 gomendio aurkeztu zituen:

- Erabiltzaileak Think Tankeko eztabaida prozesuetan sartzea

- Bigarren fase bat bultzatzea eta Think Tank batetik Do Tank (ekintza) batera igarotzea
- Metodologia hobetzea hausnarketa teorikoa kasu praktikoekin tartekatuzko, eta hobekuntza proposamenak diseinatzea.
- Esku-hartzea adituekin eta erabiltzaileekin modu egokiagoan konbinatzea.
- Think Tankaren osaera hobetzea: azpiordezkatuta dauden taldeak egon daitezke.
- Think Tankaren webgunea hobetzea: lankidetzako plataforma bihurtu nahi da. Lankidetzako plataforma gisa eratu ahal izatea.
- Liburu zuria etorkizuneko politikak gidatzeko tresna pedagogiko gisa erabiltzea.
- Ekintza pilotuak ekintza-plan batean egituratzea.

Hurrengo bileraren aurretik

Pertsonalizazioari buruzko hurrengo bileraren eztabaida prestatzeko, alde batetik, pertsonarengan oinarritutako arretari buruzko lantaldeak egindako pertsonalizazio gidaren zirriborroa bidali zitzaizen parte-hartzaileei. Bestetik, galdetegi bat bidali zen, non deskribatzen ziren pertsonalizatorako lantaldeak identifikatu zituen pertsonalizazio-azeleratzaileak eta trantsizio-espazioak. Eta honako hauei buruz galdetzen zen: azeleratzaile eta espazio horien garrantziari buruzko adostasun edo desadostasun mailari buruz, eta identifikatu gabeko gomendioei eta/edo beste azeleratzaile eta trantsizio-espazio batzuei buruz.

2021-06-22 11. bilera. POA lantaldearen ondorioak

2020-2021 ziklo honen azken bilera 2021eko ekainaren 22an egin zen, eta # 11 memorian zehaztuta dago. Hasiera batean Liburu Zuriaren gaia bilera honetan jorratzea aurreikusita bazegoen ere, azkenean, Think Tankeko taldearen arduradun nagusiak jakinarazi zuen bezala, pertsonarengan oinarritutako arretari buruzko taldeak egindako lana partekatuzko eta kontrastatzeko bilera egitea erabaki zen. Talde hori martxoan eratu zen, Think Tankaren emaitza gisa, taldeak pertsonalizazioaren gaiari buruz eztabaidatzean (2020ko urrian eta maiatzean egindako bilerak) beharrezkotzat identifikatutako zereginen garapenean lan egiteko.

a) Eztabaida prozesuari buruzko elkarrizketak: agenda aldatzea eta Liburu Zuria

Arduradun nagusiak bileraren agenda aldaketaren berri eman zuen, hasieran Liburu Zuriaren gaia jorratzea planifikatuta baitzegoen. Gainera, jakinarazi zen Liburu Zuria uztailean aurkezteko asmoa bazuten ere, irailean aurkeztea erabaki zutela, alde aurretik edukiak kontrastatu ahal izateko.

b) POA lantaldearen ondorioak eta taldearen ekarpenak: gomendioak

Taldearen eztabaida oinarritu zen zerbitzuen pertsonalizazioan, eta, horretarako, Think Tankaren barruan eratutako POA lantaldeak partekatu zituen egindako lanaren emaitzak. Eztabaida taldeak, ondoren, lan horren inguruan hausnartu eta lanketa egin zuen.

- *Zerbitzuak pertsonalizatzeko gida: POA lantaldearen prozesua eta ondorioak.* Lantaldeko koordinatzaileek POA taldearen lanari buruzko aurkezpen bat egin zuten, eta gogorarazi zuten nola sortu zen Think Tankaren proposamen baten ondorioz, nortzuk osatzen duten taldea, zein helburu dituen eta zer prozesu garatu duten (# 12 lan dokumentuan deskribatua). Taldearen helburua zen POA ereduari buruzko kontzeptu-mapa bat egitea, POAko jardunbide egokiaren mapa bat eta ebaluatzeko tresna bat egitea, eta pertsonalizazioari buruzko gida bat egitea. Hala, taldeak zerbitzuak pertsonalizatzeko gida bat egin zuen, kontzeptu-mapa bat, gomendioak, tresnak eta jardunbide egokiak biltzen dituen. Taldekide batek bileran bertan argitu zuenez, terminologia aldatu egin zen, eta, horren arabera, "pertsonalizazioaz" hitz egin zen, eta ez "pertsonarengan oinarritutako arretaz", irekiagoa

iruditzen zitzaielako. Taldeko koordinatzaileek gidaren eduki eta ekarpen nagusiak azaldu zituzten, eta arreta berezia jarri zuten pertsonalizazioarako «azeleratzaile»etan.

- *Parte-hartzaileen ikuspegia pertsonalizazioarako azeleratzaileei buruz.* Taldeko dinamizatzaileak laburbildu zuen parte-hartzaileen ikuspegia POAko lantaldeak bere gidan identifikatutako azeleratzaileei buruz, eta zehaztu zuen zein elementutan zegoen adostasun-eta desadostasun-maila handiena. Ikuspegi horiek bileraren aurretik bidalitako galdetegian jaso ziren.


- *Taldeko dinamika gomendio berrikusteko eta berriak proposatzeko, eta eztabaida.* Eztabaida taldeak, azpitaldetan banatuta eta ondoren guztiak batera, gogoeta bat egin zuen pertsonalizazio gidaren gomendioak berrikusteko eta gomendio berriak proposatzeko. Dinamikatik gomendio batzuk atera ziren, bai gidaren edukiari buruzkoak, bai formari (adibidez, hizkuntza) eta erabilerari (inplementatzeko) buruzkoak.

POAko lantaldeari buruzko gai nagusiak (helburuak, parte-hartzaileak, garatutako prozesua eta beste gogoeta batzuk) eta pertsonalizazioaren gidaren inguruan egindako eztabaidaren emaitzak, bai galdetegiaren bidez jasotako ikuspegia, bai bileran egindako dinamikaren talde-ondorioak, # 12 lan dokumentuan jasota daude (eta, gainera, Liburu Zuriaren parte izango dira).

1. Irudia. Ongizate egoeraren etorkizunei buruzko eztabaida taldearen I. zikloaren kronologia

2020-06-25 2020-07-23 2020-09-24 2020-11-26 2020-12-14 2021-01-28 2021-02-25 2021-03-24 2021-04-29 2021-05-27 2021-06-22


Eztabaidaren I. ardatz tematikoa: Covid-19aren krisia eta horrek gizarte zerbitzuetan dituen ondorioak



1. txostena: Gipuzkoako gizartearen Covid-19aren krisiari aurre egiteko gomendioak

Eztabaidaren II. ardatz tematikoa: ongizate egoeraren etorkizunak eta gizarte politikak

Ardatzen baterako diseinua Eztabaidarako eta esperimenterako ardatzak



"Joko arauak" eta emaitzak: eztabaida prozesuari buruzko elkarriketak

